

MAIALEN

Irakurri eta jarraitu beltzez dauden aginduak

Hozkailuan janariak ongi eta txukun kokatu dituenean, egunkaria irakurtzen hasi da. Bertan honakoa irakurri du:

IKASLE LANGILEEN SARIA

Igorreko eskolako ikasleek eraman dute aurten.

Eusko Jaurlaritzak urtero ikasle langileen saria banatzen du Euskal Herriko eskoletan.

Aurten sari hori **Igorreko eskolako ikasleek** lortu dute.

Saria **atzo** eman zien lehendakariak **lehenengo mailako ikasleei**.



Gaur ospakizun polit bat egingo da eskolako patioan.

MAIALEN

Albiste hau irakurrita, esan esaldi hauek **egia** edo **gezurra** diren:

Igorreko eskolako ikasleek saria irabazi dute.

Saria gaur emango die lehendakariak bigarren mailako ikasleei.

Ospakizun bat egingo da eskolako patioan.

Erantzun:

Nongo eskolako ikasleek lortu dute saria?

Zer egingo dute saria lortu dutela ospatzeko?
